

## NILS M. HOLMER (1904-1994)

Suediako egun luzeetako batean zendu zen, 1994ko ekainaren hamarrean, Nils M. Holmer hizkuntzalari ospetsua. Frenninge hiriko bere etxean itzali zen, bere seme Arturok idatzi didanez, eta bat-bateko heriotzea izan omen zuen inolako larritasunik gabe.

Gotemburgen jaio zen 1904ko otsailaren 5ean. Laurogeita hamar urte beteak zituen, beraz, iragan neguan. Lund hiriko Unibertsitatean eginik goi mailako ikasketak, 1925ean burutu zuen Arte arloko batxilergoa, eta sei urte geroago, 1931an, lortu zuen lizentziatu titulua.

1948an hasi zen Lunden bertan hizkuntzalaritza konparatua irakasten, eta 1950etik 1969ra gai horretako katedraduna izan zen adinagatik irakaskuntza utzi arte.

Euskararen ikerle eta Euskaltzain ohorezkoa zen.

Munduko hizkuntza zaharren ikerle eta maisu handiari galdetu nion behin neure etxean zenbat mintzaira ezagutzen zituen. Ez zidan erantzun, baina bere emazte Vanyak azalpen hau egin zidan albotik:

— Hamabiren bat mintzo ditu, behar bada, hamalau. Orohar 32 bat irakur ditzake. Geroztik ibilia da Ozeaniako beste herri batzuk ezagutzen.

Hiru une edo saio desberdin bereiz ditzakegu nagusiki suediar jakitunaren lanetan:

- 1) Gaelieraren jarraipena,
- 2) Amerindiarren hizkerena eta
- 3) Ekialdeko aztarna zaharren sailkapen oinarritzkoa.

1. *Gaeliera* ikasteko Eskozia eta Irlandan bizi izan zen 1935etik aurrera. 1937 eta 1938 . urteetan *Todd lecturer* edo atzerriko irakasle izan zen Irlandako Akademian.

Denbora honetako bi ekintza azpimarra daitezke: Norvegiako Carl Marstrander ikerlearekin gaelieraren dialektoak sailkatzen egindako lana, eta 1941etik 1948ra Uppsalako Unibertsitatean zeltiar hizkuntzak irakatsi izana.

2. *Ameriketako indioen mintzairak* lantzen hasi zen aurreko saioekin batetsuan. Gotembergo S. Henry Wassén etnologiarekin Panamako *cuna* hizkuntza, edota Kolonbiako *kaggaba* eta *sanká* landu zituen 1947an.

Kanada eta Estatu Batuetan ibili zen hurrengo urtean, eta Hegoameriketako hizkuntzei jarrai zien 1954a arte.

3. *Australia* izan zuen lantegi 1964tik aurrera. Orduan berak ikertutako *kattang* eta *thangatti* desagertuak dira geroztik. Australiako Jatorri Hizkuntzen Institutuaren eskariz, *waka* eta *gunggari* herrialdeetan ibili zen, bost lengoia baino gehiago zituelarik bakoitzak.



Nils M. Holmer

## HOLMER ETA EUSKARA

Ibero-kaukasieraren susmoz ikasi zuen euskara. 1950ean hasi zituen Euskal Herriarekiko harremanak eta hil arte zaindu du lotura.

Artxiboa begiratu, 1959koak direla neuk jasotako lehen eskutitzak lkusten dut eta beste lau izkribu urte horretakoak. Luzaiden ateratzen genuen aldizkaritxoaz interesaturik agertzen zen. Niri beti euskaraz idazten zidan. Mintzatzeko bazuen zailtasun gehiago.

Hogeita bi hilabete zituen Arthur semeak Holmer familia lehen aldiz Urdiainera etorri zelarik. Nafarroako Unibertsitatean zenbait hitzaldi ematera deitua izan zen. Bertan agurtu nuen pertsonalki, baina jendez inguratutik zegoen eta ez zen nire izenaz jabetu. Gau hartan bertan neure atzetik iritsi zen herrira. Elurra ari zuen. Etxeaz gustatu zen eta bereziki lurreko suaz, horrelako etxe bat erosteko gogoaz azalduz. Euskara erakutsi nahi zion semeari txikitatik:

— “Bost lengoia moderno ikasiko ditu Suediako eskoletan, baina indoeuropear aurrekorik ez noski, esan zidan. Horregatik nahi dugu euskara ikas dezan. Hizkuntzalari izatea erabakiko balu lagungarri izango du”.

Bermeon bizitu ziren epe luzean ama-semeak.

Aurkipen garrantzitsuenetakoa, munduko hizkuntzak lau (edo bost) oinarritzko multzotan biltzea izan zen, hala nola, *Paleo-Eurasian-American Prefix type* delakoa.

Bertan sartzen zituen, euskara, kaukasiera (georgiera etab.), sumerioa, burushask eta *paleosibiriko* beste batzuk. Euroasialdeko biztanle zaharragoen aztarnak liriateke multzo honetakoak, toki isladatu eta Kaukaso edo Pirine mendiak bezalakoetan geldituak.

Altaiko eta finnougariar *Eurasian suffix type* multzoa gero etorritakoa da.

Indoeuropear multzoa da Europan berriena, eta tipologia aldetik nahasketa bat omen da, *suffix type* delakoaren zenbait elementu dituelarik eta Ipar-Afrikakoen bokal aldaketa moduko beste zenbait. Ez dira, bere ustez, multzo genetikoak bi osaki horien iturriak, morfologikoak baizik. Esan nahi da, hitz guztiak aldatu ere beste hizkuntza batzuetatik hartutakoekin, hizkuntzaren ardatza ez dela hiztegia bezain laister aldatzen. Adierazgarriagoa da beraz lurralde bateko hizkuntz historiarentzat morfologi ardatza, hizkuntzalaritza edo linguistika genetiko bano.

Azken urteotan semearen bidez erantzuten zien gutunei eta hil baino hilabete batzuk lehenago bidali zizkidan Koldo Mitxelenak berari idatzitako izkribuen fotokopiak, hark Errenteriarri bidalitakoekin parekatzeko. Benetan aberatsa da altxor hori. Behin eta berriro aitortzen du Mitxelenak zertan izan zaion argibide haren esana. Gutxitan egin ohi dituen laudorioak irakur daitezke gutun hauetan. Suediarrak bidalitako lan bati buruz, honako hau dio:

“... Tenía alguna idea de sus métodos por las conversaciones que hemos sostenido y también por la introducción teórica que puso Vd. a aquel trabajo comparativo sobre lenguas norteamericanas cuya separata me dejó, pero ha sido en éste donde he podido verlo mejor. Puede Vd. creerme que me ha parecido una de las cosas más interesantes y orientadoras que se han escrito nunca sobre nuestra lengua, dejando aparte las otras” (Carta de 01-03-1951)

Munduan zehar Asia eta Ozeanitik, Europa eta Ameriketara banaturik daude bere idazlanak. Bildua dugun bibliografia osoa aipatu gabe, euskarari dagozkionak Euskalerriko aldizkari hauetan aurki daitezke: Donostiako *BAPen* lehenbiziko hiruak (1950-1959). *ASJU*n bi, 1969 eta 1977an. Koldo Mitxelenaren omenez argitaratutako *Symbolae* bilduman ere jaso da haren lan bat. Halere, *Fontes Linguae Vasconum* Iruñeko aldizkariarekin izan zituen hartu-emanik iraunkorrenak, bertan argitaratu direlarik hizkuntzalarari ospetsuaren zortzi izkribu.

Euskalariarentzat aipagarriena, halere, “*El idioma vasco hablado*. Un estudio de dialectología euskérica” izeneko liburua da. 1964an plazaratu zuen Donostiako “Julio de Urquijo” Mintegiak, Suediako Errege eta hango Giza-ikerketen Kontseiluaren diru laguntzaz.

Euskal Akademiaren ohorezko izendapenez bestalde, hau da munduan zehar kideztat hartu zuten erakundeen zerrenda:

- Linguistic Society of America.
- American Anthropological Association.
- Humanistika vetenskapssamfundet (Lund-ko Giza Zientzien Elkarte).
- Polynesian Society.
- Linguistic Society of New Zealand.

- American Name Society.
- An Comunn Gaidhealach (Gaelieraren Eskoziako Elkarte).
- Australian Institute of Aboriginal Studies.

Inorentzat ohore izatekotan, jakitunak Euskaltzaindiari eta euskarari bere jakintza-rekin emandakoa izan da.

Eta txostena amaitzeko, azken berri pozgarria. Aitaren bidetik oso aurreraturik doan Arturo gazteak egun hauetan idatzi didanez, Taiwango Seedig hizkuntzari buruz amaitzear daukan tesia irakurri bezain laster beste Holmer baten izena gehituko zaio euskalarien etorkizuneko zerrendari. Aspaldi emandako hitza beteko da beraz.

*Jose Mari Satrustegi*